

Munduko

III. Rugby Txapelketa

ARRAUNKETA

Hego Afrika sendo eta gogotsu

Hego Afrikak merezimenduz irabazi zion Australiari 27-18 estreinakoan

**Euskadiko
Trainerila
Txapelketan 22
untzi ariko dira**

RAMON BASALDUA / BILBO

Hogeita bi untzik hartuko dute parte asteburu honetan Plentzian jokatu den Euskadiko Trainerila Txapelketan. Sailkatze estropadak bihar jokatu dira, arratsaldeko lau terdietatik aurrera. Denbora onenak egiten dituzten lau untziak izango dira igande hamaiketatik aurrera jokatu diren finaletan.

Gaspe mailari dagokionez, Zarautz, San Pedro, La Navarra Donibaneko, Zumaia, Hibaika eta Hernani izango dira Gipuzkoako ordezkariak eta Santurtzi, Arkote, Isuntza, Mundaka, Bermeo eta Deusto Bizkaikoak. Seniorretan, Oriu, Hondarribia, La Navarra Donibaneko, Koxtape, Ilunbe eta Getaria ariko dira Gipuzkoaren izenean. Ondarroa, Santurtzi, Rospas, Portugalete, Isuntza eta Zierbena izango dira Bizkaiko ordezkariak.

27 HEGO AFRIKA:

Du Randt-Dalton-Swart, Andrews-Strydom, Piennar-Straueli-Kruger, Westhuizen-Stransky, Hendricks, Le Roux, Mulder, Small, Joubert.

18 AUSTRALIA:

Crowley-Kearns-McKenzie, McCall-Eales, Ofahengaue-Gavin-Wilson, Gregan-Lynagh, Campese, Herbert, Little, Smith, Pini.

● **Puntuak:** 0-3 Lynaghen zigor kolpea (2min.). 3-3 Stranskyren zigor kolpea (4min.). 3-6 Lynaghen zigor kolpea (16min.). 6-6 Stranskyren zigor kolpea (19min.). 9-6 Stranskyren zigor kolpea (27min.). 9-11 Lynaghen entseia (30min.). 9-13 Lynaghen transformaketa. 14-13 Hendricksen entseia (34min.). 17-13 Stranskyren zigor kolpea (43min.). 20-13 Stranskyren dropa (48min.). 25-13 Stranskyren entseia (63min.). 27-13 Stranskyren transformaketa. 27-18 Kearnsen entseia (76min.).



Hego Afrikak aurrera jotzeko grina erakutsi zuen atzo.

KOLDO ALDUNTZIN / DONOSTIA

Txapelketaren estreinakoan izugarriko indarra erakutsi zuen Hego Afrikak. Australiak baino kontzentrazio handiagoa eta irabazteko gogo biziagoa azaldu zuen norgehiagokan zehar. Westhuizen mele erdiak maisuki gidatu zituen aurrelari mardulak, behar zenean jokaldi pertsonalak eginez eta atzekoekin lotura aparta eginez.

Lehen zatiko aurreneko hogei minutuak elkarri neurria hartzeak izan ziren, ostikada luzetan oinarrituz eta baloia urrutira bidaliz. Ordura arte oso parekatua izan zen lehia. Lynaghek egin zuen partiduko lehen entseia. Italiako Trevison jokatzan duen

joko zabaltzaileak uztartze azkarretik baloia jaso zuen eta, keinua eginez, entseiu lerroa joan zen zuzenean. Atsedenera joan aurretik, hegoafrikarrek puntuak egiteko nahia azaldu zuten. Hendricks hegalkat entseiu ikusgarria egin zuen, aurrelariak hasitako jokaldia eskura amaituz.

Bigarren zatiko lehen 25 minutuak etxekoenak izan ziren, aurrelarien indarrean oinarrituz eta presio itogarria eginez. Pix-

kanaka puntuak gehitzen joan ziren, behin baino gehiagotan entseia egiteko zorian geratuz. Munduko txapeldunek ezin zuten beraien jokoa egin eta minutuak pasa ahala, garaipenak ihes egiten zieten. Azkeneko hamar minutuak intentsioak izan ziren. Balloia alde batetik bestera eta Australia erasoan. Presio horrek ondorioa izan zuen, Kearns orpokatzaileak entseia egin baitzuen. Ez da oso arrunta aurrelari bat ezker hegalean egotea ba-

kar-bakarrik, baina, hain luzea izan zen jokaldia, kontrarioak ere galdurik baitzebiltzan.

Txapeldunak alboko sakeetan soilik izan ziren nagusi. Capeko Newlands zelaian bildu ziren 51.000 ikusleek garaipen historikoaz gozatu ahal izan zuten, Australiako taldeari irabazi eta sailkapeneko txartela ziurtaturik ikustean. Multzoko lehen sailkatuak Ingalaterra izango du seguruenik aurrean final-laurdenetan.

Tonga: ezezagunak bezain ikusgarriak

18.00 - TF1 - Eurosport

FRANTZIA		TONGA	
Pierre Berbizier	Fakaku	Valu	
1 Benezech	1 Lutua		
2 Gonzalez	2 F. Vunipola		
3 Califano	3 Fukofuka		
4 Merle	4 Latukefu		
5 Roumat	5 Mafi		
6 Cabannes	6 Mahoni		
7 Benazzi	7 Fenukitau		
8 Benetton	8 Otai		
9 Akozeberri	9 M. Vunipola		
10 Lacroix	10 E. Vunipola		
11 Saint Andre	11 Manako		
12 Mesnel	12 Latu		
13 Sella	13 Manukia		
14 Ntamack	14 Manako		

Zelaia: Olympia Park (Rustenburg)

Gaurko beste partidukoak:

Eskoziako-Bolikosta (16.00, C+ (Fr, Eurosport))

Kanada-Erumania (20.00)

K. A. / DONOSTIA

Mundialeko hirugarren jardunaldia jokatu da gaur hiru partidurekin. Frantziak oso gutxi ezagutzen duen Tongaren aurka jokatu du. Tonga ez zen sailkatu bigarren Mundialerako; Fidjik jokatu zuen orduan. Orain, ordea, Tongak kendu dio lekua Fidjiri. Frantziarentzat kontrario aproposa izan daiteke Mundialari ekiteko. Alde batetik erraza gerta dakiokelako kalitateari begira, eta baita talde jokoari begira ere. Defentsa gogorra egiten duen taldea da, fisikoan oinarrituta, espazio zabalean jokatzea gustokoa duena.

Ezin dituzte frantziarrek ahaztu Fidjiren aurka izan zituzten arazoak aurreko Mundialean. Edozein lekutatik erasoak egin ditzakeen taldearen aurka jokatzea zaila gertatzen da. Tonga, Fidji, Samoa eta inguruko rugbyak ez dio beldurrik galtzeari. Hori ondo aprobeitza dezake

Frantziak, zuloak irekitzen asmatzen badu. Alboko sakeetan izan dezake nagusitasun nabarmena, eta horretan, beti bezain zorrotz aritu beharko du Gonzalez Baionako jokalariek.

D multzoko lehen neurketa Eskoziari eta Bolikostari dago. Talde afrikarrak Zimbabue gaintu zuen sailkapen fasean eta pentsa dezakegu ez dela aurkari xamurra izango. Lehen partehartzeak ardura kenduko die afrikarrei, ikastera baitoaz azken finean. Jokoari dagokionez, jokalarien abiadura nabarmenduko genuke, baina egian esan, oso gutxi dakigu. Aurrean, Miarritze taldean aspaldi ari den Sanokok jokatu du. Aurrelari sendoekin zelairatuko da Bolikosta.

Eskoziak ez luke arazorik izan behar garaipena lortzeko eta Frantziarekin batera final-laurdenetara sartzeko. Lehen ere aipatu dugu azkeneko V Nazioetan indarberrik agertu zela eta hamabostekoan aldaketa handirik

ez dagoenez, lehen bi puntuak eskuratuko ditu. Hor izango dira, besteak beste, Milne, Wright, Chalmers eta Gavin Hastings.

Hirugarren partidua A multzoari dagokio, eta Kanada eta Errumaniaren artekoa da. Beharbada, jardunaldiko norgehiagokarik parekatuena izango da. Kanadaren kotizazioa igo egin zuen Frantziari irabazi zionean joan den udan. Jokalari indartsuak eta sendoak izateaz gain, asko ikasi dutela erakutsi zizuten.

Aurrean, ordea, antzerako aurrelariagoa duen Errumaniako taldea izango du. Krisi egoera larriak eragin handia izan du selezioan azken urteotan eta beherakada nabarmena jasan du. Hala ere, Mundial honi begira ahalegin berezia egin dute eta kanpoko laguntzei esker bultzada txiki bat izan du. Frantziaren aurkako azken neurketan hortzak erakutsi zizkion partiduen zati nagusian.

FORMULA

**Montecarloko
entrenamendu
saioetan Alesik
denbora onena**

BILBO

Jean Alesi Ferrari taldeko pilotuak egin zuen denborarik onena Montecarloko 1 Formulako Sari Nagusiko aurreneko entrenamenduan saioan. Alesik 1.23.754 segundutan egin zuen birarik azkarrena. Michael Schumacher Benneton taldeko alemaniarra izan zen bigarrena 392 milarenera. Alesik atzo egindakoak ilusioa berpiztu die garaipen gosez dauden Ferrariko zaleei.

Gerhard Berger Ferrari taldeko beste pilotuarentzat izan zen lehenengo entrenamendu saioko hirugarren postua. Austriarrak bere taldekideak baino 755 segundu gehiago behar izan zituen Monakoko zirkuituari bira emateko. Williams taldeko Damon Hill britaniarra izan zen laugarrena, Mika Hakkinen finaldiarra bosgarrena eta Johnny Herbert britaniarra seigarrena.